
AUSTRIA 2020 (1. Lauhilekoa)

Hau irakurtzen baldin bazaude seguruena ERASMUS egitekotan zaudelako da. Ez dakit Erasmus-a **egiteko** zalantzak dituzun edo jada non egiteko **lekua** den kezkatzen zaituena. Lehengo baldin bada zure kasua, guztiongandik entzungo/irakurriko duzu esperientzia bikaina dela, honetatik mila gauza ikasiko dituzula, baina bereziki pertsonalki asko ikasi eta haziko zarela. Hau guztia egia da, hala ere, esperientzia ikaragarri honengatik atera dudana hoberena nigitik eta niretzako egin eta hartu ditudan erabaki guztiak dira ikasten eta hazten lagundu nautenak. Ordea, zure kasua bigarrena bada eta Erasmus-a non egiteko zein den leku aproposena bilatzen ari bazara espero dut testu honek laguntzako izatea.

Lehenik eta behin gustatuko litzaidake esatea hemen idazten dudana nire ikuspuntua eta nik bizitako esperientzian oinarrituta dagoela eta eman den egoeratik (*COVID-19*) hemen aurretik egondako beste edozein ikasleengandik oso esperientzia ezberdina dela esango nuke. Gainera, Erasmus-a egin baino lehen behin baino gehiagotan bakarrik bidaiatu duen pertsona naiz eta ondorioz esperientzia honek zer berri ekarriko zidan jakiteko irrikan negoan. Egia esan, ez nau huts egin.

1. DORNBIRN

Dornbirn, izatez hiri bat da (50 000 biztanle), baina egia esan ailegatu nintzen unetik nire ikuspuntutik herri baten antzekoa dirudi. Izan ere Alpe-tako herri txiki baten antzera da ia etxe gehienak Alpe-tako etxeak dira eta, batzuk berriagoak beste batzuk zaharragoak baina guzti guztiak esentzia ezberdin batekin eta gehienak zurezkoak.



1. Irudia. Dornbirn City Center.

Ikuspuntu hau ez da soilik biztanle kopurua edo etxe motetan oinarritzen, baizik eta baita ere jendearen portaeran nabaritzen delako. Austrian hitz egiten den hizkuntza Alemana da, hala ere Dornbirn, Vorarlberg-eko probintzian lokatua dago eta eremu honetan “dialekto” gogor bat hitz egiten dute, haiek esaten duten eran haiek alemana ulertu dezakete baina alemanek haiei hitzik ez. Beraz, alemana jakin edo ez, egia esan, berdin du, esperientziaz dakit alemana ama hizkuntza eduki harren momentu askotan ez diezula hitzik ere ulertuko. Hala ere, zerbait jakitea lagundu egingo dizu. Nahiz eta hau arazo bat izan daitekeen, ez kezkatu haiek ulertzeko nahia dutelako eta zuk ulertu nahi badiezu ez duzu arazorik edukiko.

2. NOLA HELDU

Nire estantzia Dornbirn-en 2020ko Abuztuaren 19an hasi zen. Nola joateko plana egia esan uda osoaren zehar aldatuz joan zen eta egia esan egunero aldatzen zen. Hau jakin badakizue Covid-19-ak eraginda izan zela.

Ni Dornbirn-era kotxez joan nintzen. Hala ere, hona etorri ziren ikasle gehienak berdina egin zuten, kotxea hartu eta etorri. Hau berriz ere, egoeragatik izan zen. Hala ere, zenbait ikasle egon ziren hegazkina hartu zutela eta denek Zurich-era joan ziren eta handik Dornbirn-era trenara hartuz.


Nire aholkua hegazkinez etortzen bazara hurrengo da; IBERIAplus kide egin, Erasmus egiterakoan "Learning Agreement"-arekin egin dezakezu ordaindu gabe. Honekin deskonturik ez izan harren 25kg-ko maleta bat dohainik edukiko duzu, honekin batera beste eskaintza batzuk, ondo begiratu. Egia da zuzeneko hegazkinik ez dagoela, lehenik Dornbirn-ek ez daukalako aireporturik eta bigarrenaz Zurich-erako hegazkin zuzenak ezta ere ez daudelako, ez Gasteiztik, ezta Bilbotik ere. Hala ere, 120€ ingurugatik Bilbo-Madrid eta Madrid-Zurich bidaiak egin dezakezu (2 maleta 25kg eta maleta txikia 15kg, barne). Ondoren Zurich-Dornbirn trenaz egin dezakezu 30€ ingururengatik.

Ikusi dezakezunez, ez da oso merkea, baina prezio altuetara ohitzea gomendatzen dizut. Dornbirn, Alemania eta Suitza artean kokatuta dago eta jakin badakizunez Suitza **oso** garestia da ondorioz, hemengo prezioak nahiko altuak dira.

3. ETXEBIZITZA

Nahi baldin baduzu etxebizitza hartu, bilatu dezakezu, baina esperientziak esaten dit ia ezinezkoa dela, etxebizitza ona eta merkea aurkitzea. Gainera FHV-ko Ofizina Internazionalak ematen dituzten opzioak nahiko onak direla esango nuke. Eta alkilatze prozeduran laguntza eskaintzen dizute une oro. Hiru aukera daude;

- 1) **KOLPING HAUS** → Merkeena da. Hala ere ez dut aholkatzen. Dena partekatzen duzu, logela, komuna eta sukaldea. Logela eta komuna "pisukide" batekin baina sukaldea etxebizitzan bizi diren kide guztiekin, honek esan nahi du seguruena ez daukazula sukaldetik eta egia esan kanpoan jatea ez dela oso merkea. Gainera partekatzen duzun pertsonak ez dute zergatik unibertsitatekoak izan eta aldatuz joan ahal dira.
(Gutxi gora behera; 200-300€ / hilabetero)
- 2) **HOHENEMS** → Oso eraikuntza berria da. Asko gustatu zitzaidan. Hala ere, ez dago Dornbirn-en baizik eta Hohenems-en, 20 minututara dagoen herri txiki batean. Horrek esan nahi du konfinatuak baldin bagaude ezin direla hirira etorri, edo gu hara joan. Beraz ez da oso praktikoa. Nahiz eta bertatik mendira joateko baliabide asko egon. Etxe honetan ere Unibertsitateko jendea ez dena egon daiteke. Aurten nahiz eta unibertsitate berdinekoak ez izan gehienak ikasleak ziren.
(Gutxi gora behera; 300-400€ / hilabetero)
- 3) **ERNAS HAUS** → Opziorik berriena da eta egoeragatik hoberena nire ustez. Logelak ohea, mahaia, sukaldea (su elektrikoa, harraska eta hozkailua), balkoia eta komuna (dutxa, komuna eta konketa) dute. Isolamenduren bat eduki ezker (Covid-19-gatik) dena edukitzeko aukera daukazu eta airea edukitzeko opzioa baita ere balkoiagatik. Ohea handia da, nahiz eta burkoa ez izan oso eroso. Burukoia eta edredoa izateagatik 30€ ordaindu behar da. Honetan garbigailua 1€ eta lehorgailua 1€ balio dute eta jaboia ere zure kargu. Hiritik 15 minutura kokatuta eta unibertsitate 5 minutura.
(Gutxi gora behera; 450-550€/hilabetero)



3. Irudia. Ernas Haus.

4. UNIBERTSITATEA

Beste mundu bat da. Ulertuta daukat Austrian ez dutela hezkuntzarengatik ordaintzen. Hala ere unibertsitateko eraikinak eta prestakuntzak berrienak eta hoberenak dira. Hasteko, Ofizina Internazionalean dauden kide guztiak oso jatorrak dira eta beti daude laguntzeko prest, beraz edozein galdera baldin badaukazu galdetu, haiek erantzungo dizute eta.

Ailegatzten zarenetik aste batera gutxi gora behera "Wellcome week" deitzen den 4 egun daude. Bertan nolakoa den hiria eta Austriarren kultura zein gauza garrantzitsuenak ikasten dituzu. Zenbait esaldi alemanez baita ere. Lehen egunean, unibertsitateko txartela ematen dizute. Hau oso garrantzitsua da, nahi duzun unetan unibertsitate sartzeko aukera ematen dizulako. Baita ere, bertan 12€ sartuta dituzu kolorezko inprimatzailetan erabili ahal izateko. Hala ere txuribeltzeko inprimatzaileak dohainik erabili ditzakezu. Beti ere papera zuk eramaten baldin baduzu.

Egoera (COVID-19) txarrera baldin badoa, ez kezkatu klaseak birtualak izateko arazorik ez dutelako, dena prestatuta daukatelako. Nire kasuan, "Focus Electronical Engineering" deituriko irakasgai bat neukan non bertan proiektu bat egin behar genuen (*robot bat eraiki*), nire zatia mikro kontrolagailu bat programatzea izan zen eta horretarako beharrezkoak nituen tresna eta erreminta prestatuta utzi zizkidaten arazorik gabe.

Hona etortzen diren Erasmus ikasle gehienak *International Business* ikastera etortzen dira, behintzat nire urtean. Nik, 4. urtean egin nuen Erasmus-a eta horregatik bertako eta *Mechatronik* graduetako asigaturen nahasketa bat izan nuen.

Mechatronik-ako irakasgaiak astean zehar dira gutxi gora behera ordutegi finko batekin (batzuetan) hala ere *International Business*-eko irakasgaiak "bloke" irakasgaiak dira, horrek esan nahi duena 3-4 eguneko irakasgaiak direla eta behin egun kopuru horiek amaitzen direnean irakasgaia amaitutzat ematen da.

Honek alde onak eta txarrak ditu. Alde batetik, klaseak larunbatetan edukitzeko aukera handia dago, baina ez kezkatu, alde ona aste osoak libreak edukitzeko aukera ere oso handia daukazu eta. Esaterako, demagun daukazula ostiral-larunbat-astelehen-astearte klase, seguruena da hurrengo astean klaserik ez izatea. Honek hurrengo puntura eramaten nau.

5. BIDAIK

Aurretik esan dudan moduan, aste libreak edukiko dituzu, eta asteak ez badira, 4-5 eguneko "oporrak". Honek asko bidaiatzeko aukera ematen dizu. *Covid-19*-aren eragina oraindik baldin badago eta "Vorarlberg"-etik atera ezin bazara, lasai. Vorarlberg-en leku ikaragarri politak esploratzeko aukera daukazu. Hala ere, seguruena Vorarlberg zein Austriatik ateratzeko aukera izatea ere espero dut.

Hona hemen hainbat aholku:

a. VORARLBERG

i. MENDIAK

Karren, Staufen, Staufensee, Ranzenberg, Zanzenberg, Hoher Freschen, Hohe Kugel, Sünerspitze, küberg, Holenke (Kanisfluh), Pfänder, Lünensee, Totalphütte Hochälpelekkopf, Rappenlochschlucht, Üntschenspitze, Piz Buin, Damülser Mittagspitze, Mohnenfluh, Juppenspitze.

ii. HIRIAK

Feldkirch, Bregenz, Bödele, Mellau, Damüls, Bludenz, Lochau, Hard, Lustenau, Warth, Schröcken, Lech Am Alberg.

b. AUSTRIA

Viena, Salzburg, Innsbruck, Hallstatt, Linz, Graz, Großglockner.

c. EUROPA

Lindau, München, Baviera, Vaduz, Zürich, Interlaken, Dolomites, Milan, Bolzano, Budapest, Bucarest, Ljubljana, Praga, Bratislava.

6. FESTA

Nire egonaldian ia Erasmus osoa, azkenengo 3 hilabeteak jatetxe eta taberna guztiak itxita egon dira beraz, egia esan ez dut festa askorik ezagutu hirian, egoeragatik, horrek ez du esan nahi festarik ez dugula izan. Bakarrik kontuan hartu behar dugula Etxe barruan egiten direla festak eta polizia etortzen bada arazoak eduki ahal dituzula. Hala ere horrek ez ditu Erasmus-ak geldituko.

Nire Erasmus-aren hasieran Salszburgo-ra joateko aukera izan genuen, eta han ikusi genuena **FESTA** izan zen. Baina, berriz ere ez dakit nola egongo den egoera zu etortzen zarenean, hala ere festa eduki nahi baldin baduzu argi izan aurkituko duzula.

7. COVID-19

Austriara ailegatu nintzenean zirudien Covid-rik ez zegoela, bakarrik alimentuzko dendetan eta ibilgailu publikoetan beharrezkoa zen musukoa. Hala ere egoera txarrera egin zuen eta "Lockdown"-a ezarri zuten. Ez larritu, Austriarrak haien eskubideak aldarrikatuta dituzte eta gobernuak errespetatzen ditu. Beraz ez da konfinamentu gogorrik egongo. Egoera larrian bazaude ibiltzera atera ahal zara "toque de queda" delakoa izan harren.

Aurten behintzat eskiatzeko aukera izan dugu, ez dakit nolakoa izango den egoera hurrengo urtean hala era badakit Austriarrak eskiatu gabe ez direla geratuko beraz eskiatzeko nahia baldin baduzu ez keskatu hemen eskiatuko duzula.

"Lockdown" ostean, estrikzio ezberdinena musuko aldaketa izan zen FFP2 musukoa nahitaezkoa da leku itxi guztietan, hori dirudienez betirako edo behintzat denbora luzerako jarri duten estrikzioa dela. Hala ere 0,6€ balio dute beraz ez da hainbeste, gainera supermerkatu gehienetan dohainik ematen dizkizute.